

Etaparen testuingurua: Iritzi moralerako trebetasuna sustatzea helburu oso garrantzitsua da hezkuntzarako, baina hura ezin da mugatu oinarri moralak hedatzera. Ikuspegi-aldaketa behar da, baita hastapen moralei buruz hausnartzeko gaitasuna eta eztabaida batean jarrera adierazteko gaitasuna ere.

Helburuak

Etaparen bukaeran, honako hau lortu beharko lukete ikasleek:

- ✓ ongi oinarritutako iritziak sortzea (gai honi buruzkoak) eta beste iritzien artean eztabaidatzea eta aurkeztea

Edukia

- ✓ Oinarri etikoak eta irizpideak, batez ere giza eskubideen arloan
- ✓ Ikuspegi-aldaketa pertsonal eta enpatikoa
- ✓ Iritzi propioak sortzea eta bakoitza bere jarreraren inguruan eztabaidatzea

Metodoak

- ✓ Ikuspegi-aldaketa
- ✓ Oinarri etikoak gaiarekin lotu eta zehazteko ariketak
- ✓ Jarrera eta iritzi propioak aurkeztu, justifikatu eta eztabaidatzeko ariketak

3. etaparen trantsizioa:

Oroitarazi ikasleei azken aldian gonbidatu bat izan zutela, eta hari esker gehiago ikasi zutela errefuxiatuen esperientzien eta egoerari buruz. Topaketa baten bidez beste pertsona batzuen ikuspegiak barneratzeko gai bagara, hobeki erantzun ahal izango dugu galdetzen badigute zer behar duten pertsonak eta zer eskubide dituzten. Orain, kontua da jakitea zein diren pertsona horien legezko eskubideak eta nola bizi gaitzkeen elkarrekin.

1. PAUSOA

I kuspegi-aldaketa: zer gertatuko litzateke, baldin eta...?

E skatu ikasleei lehenbizi berengan pentsa dezatela (galderak → [ikasleentzako lan-orriak](#)):

- ✓ Imajinatuko dut beste herrialde batera ihes egin dudala: Zer litzateke niretzat bereziki garrantzitsua? Zer behar nuke beste herrialdera onik ailegatzeko, nire gizarte berriari ekarpenak egiteko eta han bizi diren pertsonekin harmonian bizitzeko?
 - ✓ Errefuxiatua banintz, zer amestuko nukeen: Zertarako izango nuke eskubidea, zer eskatuko nuke?
-

2 Eskatu ikasleei taldeak sortzeko, hausnarketa pertsonala egin eta gero.

Taldeetan, ikasleek beren hausnarketa pertsonaletan oinarrituta eztabaidatuko dute eta "Errefuxiatuen Eskubideen Adierazpen" bat egingo dute elkarrekin (kartela, PowerPointa, etab.). Eskubideen zerrenda bat egin dezakete edo horiek grafikoki/sinbolikoki erakutsi (zenbat denbora dugun).

3 Gero, talde bakoitzak bere adierazpena aurkeztuko du, eta azalduko du zergatik bildu dituen eskubide horiek eta zer esan nahi duten. Taldean iritzi desberdinak sortu badira, aipatu egin behar dira.

4 Hausnarketa txiki bat:

- ✓ Zer nabaritzen dugu?
- ✓ Bada zerbait (adb.: eskubideren bat) denentzat bereziki garrantzitsua dena?
- ✓ Badaude ikuspegi desberdinak? Adibidez, norbaitek pentsa dezake eskubide jakin bat egiantan existitzen ez dela, edo, agian, norbait ez da ados egongo eskubide horrek duen hedatzearekin.
- ✓ Entzun dugu errefuxiatuen ustez zer den garrantzitsua. Bat al dator errefuxiatuen oinarritzko eskubidetzat jo ditugunekin?

2. PAUSOA


Zer oinarrizko eskubide dituzte errefuxiatuek?

Pauso honetan, errefuxiatuen oinarrizko eskubideak gaika erakusten dituzten zenbait bideoen artean aukeratu dezakezu.

David Milibanden (Erreskaterako Nazioarteko Batzordearen lehendakaria) TED-Talk hizketaldiak hausnarketa eta eztabaida sustatzen ditu, baina, luze samarra denez (18 min) eta hizkuntza-maila jaso erabiltzen duenez, beti ez da erraza hariari jarraitzea. 7:10 minututik ("Gaur, zer esango dizuet?") 9:00 minutura ("Nor dira izuaren biktimak?", txaloak), David Milibandek eskubideekin lotutako "lau irtenbide" deskribatzen ditu (hezkuntzarako eskubidea, lanerako eskubidea, finantza-laguntzarako eskubidea, arriskuaren kontrako babeserako eskubidea), eta hori bereziki interesgarria da errefuxiatuen eskubideen aferarako.



Beste bideoak (animazioak) laburragoak dira eta, batez ere azken biak, giza eskubideak azaltzen dituzte. Bideo hauek hautatzen badituzu errefuxiatuek bizi duten egoerarekin erlazionatu beharko dituzue.





1

Erakutsi bideoa eta eskatu ikasleei adi egon daitezela hor aipatzen diren errefuxiatuen eskubideei.

2

Eztabaida: errefuxiatuen zer eskubide aipatzen dira? nola lotzen dira hemen aipatutako eskubideak eta 1. pausoa bildutakoak (antzak/desberdintasunak)?

3

Astia izanez gero, eta zure ikasleen ezagutza mailaren arabera, galdera hauek ere egin ditzakezu (galderak → [ikasleentzako lan-orriak](#)):

- ✓ Zure ustez, zer puntutaraino betetzen dira eskubide horiek gure herrialdean? Zer alderditan egin genezake guk (eta gure herrialdeak) gehiago errefuxiatuen eskubideak errespetatzeko?
- ✓ Zer eskubide ukatzen dituzte tokiko komunitate batzuek? Zer arrazoik sor dezakete ukatze hori eta zer puntutaraino dago justifikatuta?
- ✓ Zer balio adierazten ditut eskubide horiek babestu edo ukatzen ditudanean?

3. PAUSOA

Rol-jokoa: Nola bizi nahi dugu elkarrekin?

Egoera: (Egoera → **KASLEENTZAKO LAN-ORRIAK**)

1. Orain dela aste batzuk, X Hiria izeneko herri txikian, errefuxiatuentzako kanpaleku bat sortu da, 400 lagunentzat. Familia askok haur txikiak dituzte.
2. Errefuxiatuak hara etorri baino lehen ere, herritar ekimen bat sortu zen ("Errefuxiatuak: gurekin ez!") eta babesaren ematearen kontra dago erabat. Hark dioenez, krimen-kopurua handitu egingo da eta errefuxiatuek bestelako arriskuak ekarriko dituzte, eta X Hiriari eskatzen dio bertako herritarrez gehiago arduratzeko. X Hiriari badira gizarte-arazoak. Babes-lekua jartzea saihestezina bada, behintzat herritarrak babestu behar dituzte errefuxiatuengandik.
3. Aldi berean, boluntario talde bat antolatu da ("Ongi etorri errefuxiatuak!"), errefuxiatuei laguntza emateko eta errefuxiatuen eta herrialdeko pertsonen arteko harreman onak sustatzeko. Talde horrek errefuxiatuen oinarrizko eskubideak azpimarratzen ditu eta esaten du X Hiriko herritarrek ere onurak lortuko dituztela elkarbizitzaren ondorioz.
4. Berriki, zenbait lapurreta izan dira, eta errefuxiatuei egotzi zaizkie. Bizilagun batzuk kanpalekuko zarataz eta zaborraz kezkatzen dira, eta zurrumurruek diote errefuxiatuek modu "oso susmagarrian" jokatu dutela eta arriskutsuak ematen dutela hirian barrena ibiltzen direnean. Halaber, errefuxiatuak kezu dira denda batzuetan ez dietelako zerbitzatzen eta iraindu egiten dituztelako kalean. Esaten dute oso zaila dela harreman lagunkoia izatea bertakoekin.
5. X Hiriko alkateak gatazkek indarra hartzea saihestu nahi du eta mahai-inguru bat jarri du abian. Honako hauek gonbidatu ditu: ekimen bakoitzeko bi ordezkari ("Ongi etorri errefuxiatuak!" eta "Errefuxiatuak: gurekin ez!"), babes-lekutik hurbil bizi direnak eta bi errefuxiatu. Mahai-ingururako galdera gakoak: "Nola bizi gaitezke elkarrekin X Hiriari? Nork ditu zer eskubide eta zer betebeharrak? Zertan gaude ados etorkizunean elkarrekin bizitzeko? Alkateak moderatuko du hizketaldia. Pertsona guztiek egin dezakete ekarpena beren ikuspegia emanez, baina beste parte-hartzaileak ezin dira iraindu edo gutxietsi."

Prozedura

1

O satu 5 talde:

- ✓ 1 taldeak alkatearen rola hartuko duen pertsona aukeratuko du, eta aholkua emango dio mahai-ingurua prestatzeko. Alkatearen rolak ahalegin handia eskatzen duenez, zuk hartzea gomendatzen dizugu. Kasu horretan, ikasle-talde batekin egin dezakezu kontsulta mahai-ingurua nola moderatu adosteko.
- ✓ 2-5 taldeetako bakoitzak ("Errefuxiatuak: gurekin ez!", Ongi etorri eErrefuxiatuak!", bizilagunak eta errefuxiatuak) bi ordezkari hautatuko ditu mahai-ingururako, eta haiekin eztabaidatuko dute zer jarrera hartuko duten eta zer eskari egingo dituzten mahai-inguruan.

2

Mahai-ingurua egiten den bitartean, gainerako ikasleek behaketa-lana egingo dute.

3

Mahai inguruaren ondoko hausnarketa (galderak → [ikasleentzako lan-orriak](#)):**Ikusleak:**

Zer nabaritu dugu? Nolako estrategia hartu zuten parte-hartzaileek? Aurreiritziak adierazi zituzten edo pertsonaren bat iraindu zuten? Zer eskubide eta betebeharrak aipatu ziren errefuxiatuentzat eta bertakoentzat? Zein argudio iruditu zitzaizkidan sendoak, eta zein, ez? Elkar ulertzea lortu da ala parte-hartzaile batzuk gailendu egin ziren? Zer kontzeptu nabarmendu ziren komunitatean elkarrekin bizitzeko?

**Mahai-inguruaren parte-hartzaileak:**

Nola sentitu nintzen nire rolean? Nola sentitu naiz, eskatu bazait "bizitza errealean" maite ez dudan jarrera bat antzeztea? Besteak konbentzitzeko gai izan naiz? Nola? Nire iritzia aldatu dut? Zergatik? Gustura gelditu naiz prozesuarekin eta emaitzarekin? Eta hala ez bada: zeren falta sumatu dut edo zerk gogaitarazi nau? Eztabaida berriz ere izan ahalko banu, nola aurkeztuko nituzke nire argudioak, nolako jarrera hartuko nuke aurkeztutako gaiei dagokienez?

Hausnartzea

Azaldu etapa honetako hausnarketa-lana (Hausnarketa-lana → ikasleentzako

lan-orriak). Hurrengo etaparako, mesedez:



Idatzi garrantzitsuenak diren hiru eskubideak, alegia, zer hiru eskubideri ez zeniekeen inolaz ere uko egingo beste herrialde batean egonez gero.



Egin zuretzat eskubide horiek adierazi edo sinbolizatzen dituen objektu baten argazkia.

Laburpena eta trantsizioa

Eskatu ikasleei esaldi gutxi batzuetan azaltzeko zer ikasi duten.

Zenbait lagunek beren ekarpena adierazi eta gero, esandakoa zure hitzetan laburbil dezakezu (ikusi etapa honen helburuak).

Orduan azal dezakezu nola izango den hurrengo etapa: *“Hurrengo aldian, aurreiritziak eta gutxiesteak landu behar ditugu”.*

GOAZEN 5. ETAPARA